

**EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA, GIPUZKOAKO
HONDAKINEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANEAN
JASOTAKO HIRI HONDAKINEN KUDEAKETARAKO
AZPIEGITURAK ERAIKITZEKO JABETZAREN
INGENIARITZAREN LAGUNTZA TEKNIKORAKO
KONTRATUA ARAUTUKO DUENA**

EDUKIA:

1. KONTRATUAREN XEDEA**¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
2. LANEN IRISMENA.....**¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
 - 2.1 JARRAIPENA, LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO LURRALDEAN HONDAKINAK TRATATZEKO ERAIKIKO DIREN PLANTA GUZTIAK ERAIKI ETA FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO BEHARREZKOAK DIREN ERA ASKOTAKO BAIMENAK ESKURATZEKO..... **¡Error! Marcador no definido.**
 - 2.2 SORTEN DEFINIZIOA ETA AHOLKULARITZA SORTAK KONTRATATZEKO PROZESUAN..... **¡Error! Marcador no definido.**
 - 2.3 XEHETASUN INGENIARITZA ETA FASEARTEAK..... **¡Error! Marcador no definido.**
 - 2.4 OBREN GAUZATZEA IKUSKATZEA **¡Error! Marcador no definido.**
 - 2.5 INSTALAZIOAK ABIAN JARTZEA IKUSKATZEA **¡Error! Marcador no definido.**
 - 2.6 LAGUNTZA TEKNIKOA OROKORREAN, GIPUZKOAKO HONDAKINEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANEAN JASOTA DAUDEN AZPIEGITURAK ABIARAZTEARI DAGOKIONEAN..... **¡Error! Marcador no definido.**
3. LANAK ZUZENTZEA**¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
4. ESLEIPENDUNAREN LANGILEAK ETA BULEGOA**¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
 - 4.1 EKOIZPEN TALDEA..... **¡Error! Marcador no definido.**
 - 4.2 ESLEIPENDUNAREN BULEGOA **¡Error! Marcador no definido.**
5. LAN PROGRAMA, ETA ALDIAN ALDIKO TXOSTENAK LAGUNTZA TEKNIKOAREN GARAPENARI BURUZ.**¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
6. LAGUNTZA TEKNIKOA EMAN BITARTEAN PRESTATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA, EDIZIOA, KOADERNAKETA ETA JABETZA INTELEKTUALA.....**¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
7. ESLEIPENDUNAREN ESKURA JARRITAKO DOKUMENTAZIOA;**¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
8. ESLEIPENDUNAREN LANKIDETZAZ BURUTUKO DIREN LANAK;**¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lehiaketaren barruan sartu dira Jabetzaren Ingeniaritzaren Laguntza Teknikoak Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroari nahiz hondakinen kudeaketarako Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatutako gainerako azpiegiturei dagokienean egingo dituen jarduketak guztiak. Lehiaketatik kanpo dago eraikiko diren planta edo azpiegitura/instalazioetako xehetasun-ingeniaritza, horien esleipendun suertatzen diren kontratisten ardura izango baita.

Beraz, laguntza teknikorako kontratu honen xedea, zehazki, ondoko lan hauek burutzea da:

- Eraiki beharreko planta bakoitzean kontuan hartuko diren irismenen definizioa egiteko oinarritzko proiektuak idaztea.
- Ingurumen-baimenak eta jarduera-baimenak nahiz beharrezkoak diren bestelako legeztapenak idazten eta izapidetzen laguntzea. Idazketa barne, beharrezkoa bada eta GHK-k edo Kontsortzioak hala eskatzen badute.
- Ezaugarri teknikoen agiri-proposamenak idaztea, aipatutako instalazioak eraikitzeke lehiaketetarako, eta laguntza teknikoa ematea aurkeztutako eskaintzak taulen bidez adierazteko orduan, GHKren edo Kontsortzioaren eta planten esleipendunen arteko kontratua osatzeko laguntza tekniko berezitua barne.
- Laguntza ematea eginkizun hauetan: xehetasun-ingeniaritzako proiektuak ikuskatzea, eraikuntza-lan guztiak ikuskatzea eta behar bezala gauzatzen direla kontrolatzea (*Project Management* moduan), GHKri edo Kontsortzioari laguntzea horiek abian jartzen eta instalazioak eraikitzeke zehaztutako eskakizun teknikoak eta errendimenduak betetzen direla egiaztatzen.
- Laguntza teknikoa orokorrean, jabetzaren ingeniaritza bezala, Gipuzkoako Hondakinen Lurraldearen Arloko Planean jasota dauden hondakinen kudeaketarako obrak edo azpiegiturak burutzearekin lotuta dauden proiektu edo azterlanetan.
- Sozietateari laguntza ematea, hala eskatuko balitz, kontratuaren bidez konprometitutako bermeak edo errendimenduak ez betetzeagatik kontratistek egindako erreklamazioetan.

Lan horiek egiteko, lanen zuzendariari lanen zirriborro osoa duen dokumentua emango zaio, proiektu bakoitza idazteko epea amaitu baino hamabost egun lehenago gutxienez, bukaerako azterketa egin eta gero, beharrezkoak diren doikuntzak egin daitezen eta behin betiko dokumentua editatu eta eman dadin, onartutako idazketa-epearen barruan.

Bereziki garrantzitsutzat jo ditugu dokumentazio tekniko fidagarria izateko eraginkortasuna eta azkartasuna, lizentziak eta era askotako baimenak arin izapidetu ahal izateko eta, era horretan, eraikuntza-obrak gauzatzeko lehiaketei hasiera emateko orduan atzerapenak ekiditeko edo, bestela, zigor- eta zehapen-araudia zorrotasunez ezartzeko.

Proiektuak eta dokumentazioa idazteko, kontuan hartu behar da ezargarriak diren arauak ezinbestez bete behar direla -hala nola, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentaraua, industria-igorpenei buruzkoa, Espainiako zuzenbideari gehituta 2013ko urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren bidez-, eta baita baliagarri dauden teknikariek hobereenen inguruko Europako Batzordearen erreferentziako dokumentuak ere, eraiki beharreko etorkizuneko instalazioetan eragina dutenean.

Halaber, beharrezkoa bada, esleipendunak sorten edo instalazioen artean egon daitezkeen fasearteen xehetasun-ingeniaritza definitu eta gauzatuko du, sortzen diren beharren arabera.

2. LANEN IRISMENA

2.1 JARRAIPENA, LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO LURRALDEAN HONDAKINAK TRATATZEKO ERAIKIKO DIREN PLANTA GUZTIAK ERAIKI ETA FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO BEHARREZKOAK DIREN ERA ASKOTAKO BAIMENAK ESKURATZEKO.

Beharrezkoa bada, esleipendunak laguntza emango die GHKri edo Kontsorzioari planta guztiak eraiki eta abian hartzeko lortu behar diren era askotako baimenak erdiesteko prozesuan. Baimen horien artean, instalazio bakoitzaren berariazkotasunaren arabera, honako hauek egongo dira:

- Ingurumen Baimen Bateratua.
- Jarduera-lizentzia.
- Hondakinak balorizatu eta ezabatzeko jarduera-baimena.
- Obra-baimena.
- Elektrizitatea sortzeko instalazioei dagokien baimena:
- Elektrizitatea sortzeko instalazioak gauzatzeko proiektuaren onarpena.
- Elektrizitatea sortzeko instalazioak ustiatzeko baimena.
- Elektrizitatea sortzeko instalazioak elektrizitate-lineari konektatzeko baimena.
- Elektrizitatea sortzeko instalazioaren onura publikoa onartzea.
- Beste ingurumen-baimen batzuk.
- Beste industria-legeztapen batzuk.

Esleipenduna GHK sozietateari edo Kontsorzioari baimenak lortzeko laguntza emateaz nahiz baimen horiek lortzeko behar den dokumentazioa prestatzeaz arduratzen den neurrian, baimen-eskaerak eta horiei lotutako dokumentazioa behar bezala prestatu eta aurkezteko erantzukizuna izango du sozietatearen aurrean, eta, halaber, baimenak eman behar dituzten administrazio guztiek dokumentazioa eta informazio osagarria lortzeko eskaerari egokitasunez eta azkartasunez erantzutekoa.

Halaber, GHK edota Kontsorzioa beren burua lotuko dute esleipendunaren eskakizunei kasu egitera administrazio askotarikoen aurrean baimen-eskaerak eta dokumentazioa berehala aurkezteko orduan, premia handienaz eskatzen zaizkion erabakiak hartuz eta baimenak lortzeko orduan azkartasun eta arreta faltagatik leporatu dakizkiokeen atzerapenak saihestuz horrela.

2.2 SORTEN DEFINIZIOA ETA AHOLKULARITZA SORTAK KONTRATATZEKO PROZESUAN

GHK-k edo Kontsortzioak aztertu dute instalazioak eraiki eta abian jartzea lehiaketa publikoaren bidez kontratatze aukera, hainbat kontratu edo “sorta” eginda, eta, egokia bada, instalazio bakoitza osatzen duten elementu eta sistemetan espezializatuta dauden hornitzaileekin sinatuko ditu kontratu horiek; bidezkoa bada, barnean sartuko dira instalazio bakoitza gauzatzeko proiektuen idazketa eta xehetasun-ingeniaritza.

Hasiera batean, GHK-k edo Kontsortzioak planta edo instalazio bereizi hauek eraikitzea xedatu dute:

- Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa (GHKZ), Zubietan kokatuko dena.
- GHKZn sortutako zepak ontzeko planta, Eskuzaitzeta industrialdean kokatuko dena.
- Biometanizazio Planta, Gipuzkoako Lurralde Historikoan sortutako biohondakina tratatzeko.
- Ingurunean ur beroa edo berokuntza zentralizatua banatzeko sistema, balorizazio energetikoko plantan sortutako bero-energiak baliaturik eta, planta geratzen bada, galdara osagarriak erabiliz.
- Konpostatze-planta, Epelen (Bergara) kokatuta.
- Lurraldearen Arloko Planaren barruko gainerako azpiegiturak.

Esleipendunak, GHKren edo Kontsortzioaren erabakiari jarraituz, proiektu bakoitzaren edukia garatuko du bere esperientziaren arabera eta proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren kalitatea eta prestutasuna kontuan hartuta; horrez gain, erosketa-sorta bakoitzari dagokion lehiaketa publikorako ezaugarri teknikoen agiri-proposamena prestatuko du, bertan zehaztuta sorta bakoitzaren eraikuntza- eta funtzionamendu-baldintza teknikoak.

Ondoren, GHK-k edo Kontsortzioak aztertu eta, egokia bada, osatu egingo ditu esleipendunaren baldintza-agirien proposamenak, eta esleipendunari bidaliko dio behin betiko proposamena, egiaztatua izan dadin.

Edozein kasutan ere, sortetan zehaztuko dira, besteak beste, sorta bakoitzak izan behar dituen errendimenduak, abian jartzeko prozesuan horiek egiaztatzea ahalbidetzeko.

Halaber, esleipendunak GHKri edo Kontsortzioari lagunduko dio erakunde batak edo besteak egiten dituzten lehiaketetan parte hartzen duten lehiatzaileek egindako galdera teknikoei erantzunak prestatzen eta ahoz edo idatziz adierazten, behin baldintza-agiriak behin betiko onartu direnean.

Esleipendunak, era berean, lehiaketetan aurkeztu diren proposamen eta eskaintzen tabulazio teknikoak egingo ditu, eta laguntza emango du esleipendunekin sinatutako kontratuetak arazo teknikoak idazteko.

Goiko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, GHK-k edo Kontsortzioak erabaki ahal izango dute esleipendunak sorten erosketak negoziatu eta ixteko bilera jakin batzuetan parte ez hartzea, bilera horien edukia ekonomiko edota juridikoa soilik denean eta aldaketa teknikorik proposatzen ez denean.

2.3 XEHETASUN INGENIARITZA ETA FASEARTEAK

Esleipendunak egiaztatuko ditu kontratistek azpiegitura bakoitza eraikitzeke egindako gauzatze-proiektuak, eta ziurtatuko dute kalitate tekniko duela eta esleipendunak aurretiaz prestatutako proiektuekin eta GHK-k edo Kontsorzioak lehiaketetan egindako esleipenarekin bat egiten dutela.

Kontratatik aldaketak proposatzen baditu, esleipendunak horiei buruzko aholkularitza (tekniko eta ekonomikoa) eskatuko du, baldin eta gauzatze-proiektua aldatzen badute, eta aldaketa horiek onartuko ditu, aldaketek eraginda suertatzen diren proiektuko gainerako obra-unitateen eta instalazioen baldintzapean jarrita. Halaber, GHK-k edo Kontsorzioak hala eskatuta, esleipendunak laguntza tekniko emango du, aipatutako aldaketak sartzeko EPC kontratistarekin egiten den negoziaketan. Gainera, laguntza emango du aldaketa horiek obrak gauzatzeko epean eta prezioan izan dezaketen eraginari buruzko azterketa egiteko, eta gerta daitezkeen igoeren minimizazioa aztertuko du.

Esleipendunak, beharrezkoa bada, egin beharreko obretako arkitektura eta xehetasun-ingeniaritza landuko ditu, planta desberdinen kontratazioen artean interferentzia dagoenean, multzo osoari irtenbide egokia ematearren.

Beste alde batetik, gauzatze-proiektuak egitean, esleipendunak ekipamendu eta instalazioak legezatzeko behar den dokumentazioa presta lezake, GHK-k edo Kontsorzioak azkenean erabakitzen duten kontratazio motaren arabera, nahiz eta ohizkoa kontratista esleipendunek garatzea izan. Xede horrekin koordinatuko du prozesua, eta ekipamenduak eta instalazioak legezatzeko behar diren dokumentuak lortu eta biltzeaz arduratuko da.

Azkenik, esleipendunak bere gain hartuko du kontratistek emandako obraren bukaerako dokumentazioa bildu eta aztertzeaz, eta zehazki:

- “As built” dokumentazioa eta planoak.
- Mantentze-kontratuak, ekipamenduen bermeak eta ordezk materialer hornitzeko bermea, ekipamendu nagusien fabrikatzaileek emanda, oinarrizko ordezk materialen zerrenda, etab.
- Ekipamenduei edota sistemei dagokien jarduteko gida-liburua.
- Ekipamenduei edota sistemei dagokien mantentze-lanetarako gida-liburua.
- Abian jartzeko protokoloak.

Kontratistek proiektuari dagokion dokumentazio guztia -testuak zein planoak eta grafikoak-GHKri edo Kontsorzioari eman beharko diote, gaztelaniaz prestatuta, zehazteko dauden kopia-kopuruan eta euskarri informatikoan.

2.4 OBREN GAUZATZEA IKUSKATZEA

Esleipendunak, obra/planta guztien gauzatzea ikuskatzeko lanak garatzeko, lantalde bat izan beharko du (esleipendunak bere eskaintzan proposatu eta GHK-k edo Kontsorzioak onartuta), era honetan osatuta: industria-ingeniari bat, hondakinak kudeatzeko instalazioak

diseinatu eta gauzatzean esperientzia egiaztatua duena, eta kolaboratzaile talde bat, bere eginkizunak garatzen lagunduko diona. Ikuskatzeko lanetarako egokia den titulua izango duten teknikarien kopuru nahikoak osatuta egongo den kolaboratzaile talde horren barruan, aditu bat edo batzuk egongo dira, neurri zuzentzaileak eta zainketa-planaren ezarpenaren eta Ingurumen Baimen Bateratuan adierazitako baldintzen jarraipena egiteko.

Oro har, taldeak obrak defendatu eta administratu egingo ditu GHKren edo Kongsortzioaren ordezkartzan, obrak hartu arte; hala bada, proiektuak behar bezala gauzatzen direla zainduko du, bai alderdi teknikoaren bai ekonomikoaren eta epeen ikuspegitik, eta kontrolatu egingo du proiektuaren hasieratik behin betiko hartu arte; barnean sartuko da kongsultak egiteko eta obrari egin dakizkiokkeen ikuskapenen inguruko aholkularitza.

Obren ikuskapenaren barruan sartuta dauden oinarritzko eginkizunak ondorengoak izango dira, oro har:

- GHK-ko edo Kongsortzioko Zuzendaritza Teknikoari laguntzea edo GHK edo Kongsortzioa ordezkartzea, eraikuntza-fasean, udal-agintarien edota Autonomiako agintarien aurrean proiektuaren aurkezpena edo azalpena egiteko.
- Obrak gauzatzean, kontratistekin dauden desadostasun tekniko zein ekonomikoei irtenbidea ematea, GHK-k edo Kongsortzioak bakoitzari emandako esleipenen mugeen barruan, Zuzendaritza Teknikoaren laguntzaz.
- Obrak onartutako proiektuak edo behar bezala baimendutako aldaketak zorrotz betez gauzatzen direla bermatzea, eta kontratistari eskatzea egin behar dituen lanetan bete daitezela kontratista bakoitzarekin sinatutako eraikuntza-kontratuetan jasotako zehaztapenak; halaber, GHKri edo Kongsortzioari kontratisten betebeharretan egiten den edozein desbideratzeren edo ez-betetzeren berri ematea.
- Ingurumen-baimenetan (Ingurumen Baimen Bateratua, edo jarduera-baimena, egokia bada) jasotako baldintzak betetzen direla zaintzea, obran ezartzen direla egiaztatuz eta ezarritako jarraipen-neurriak garatuz.
- Laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak aztertzea, eta teknikari arduradunei azpimarratzea -kontratisten lantaldeetakoak nahiz obren Zuzendaritza Profesionalaren koordinatzailea bera izan- Laneko Segurtasun eta Osasunaren berriazko Gorabehera Liburuan egokiak diren oharrak idatzi behar direla, Lan Ikuskaritzara eramateko eta erakunde horrek egokiak diren zehapenak ezartzeko.
- Planta bakoitzaren esleipena lortu duten kontratistei egokia den obraren Kalitate Plana eskatzea, plan hori betetzen dela zaintzea eta obraren kalitatea kontrolatzea, beharrezkoak diren erkapen-saiakuntza osagarriak eta kalitatea ziurtatzeko kontratisten planen barruan ez dauden obrako materialen eta unitateen saiakuntzak eskatuz.
- Proiektuan parte hartzen duten muntaketa-enpresa guztien muntaketa- edota eraikuntza-jarduerak lekuan bertan ikuskatzea, eta baita enpresa horiek materialak biltzeko, obrako bulegoetarako eta abarretarako erabiltzen dituzten behin-behineko eremuen plangintza eta antolaketa ere. Jarraitutasunez "in situ" dagoen teknikari batek obrako jarduera guztien jarraipena egitea; halaber, kontratistei obra gauzatzea bizkortzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren bileretarako dei egingo die.

- Muntaketaren edota muntaketa-protokoloen segidak eta egiteko dauden lanen jarraipen-denbora koordinatuta daudela ikuskatu eta zaintzea. Muntaketa egiteko beharrezkoa den informazio guztia berraztertzea (planoak, zerrendak, prozedurak).
- Instalazio teknikoaren fabrikazioa bertan egiaztatzea, hornigai elektromekanikoei dagokien eraikuntza- eta muntaketa-fasean ikuskapen-puntuen programak eskatzea, eta lekuan bertan, jasotzen den dokumentazioaren azterketaren bidez, horiek gauzatu direla egiaztatzea.
- Kontratuan ezarritako epeak gainbegiratzea eta betetzen direla bermatzea.
- Hilero, obren garapenari eta aurrerapenari buruzko txostenak idaztea GHKrentzat edo Kontsorzioarentzat.
- Muntaketaren bukaerako protokoloak aztertzea eta horietan eskatutako informazioa dokumentuen bidez egiaztatzea.
- Planta baimenaren xede den proiektuaren eta horren osagarria den dokumentazio teknikoaren arabera gauzatu eta legezatu dela egiaztatzea, eta, halaber, erabiltzeko prest dagoela jarduteko eta mantentzeko jarraibideen arabera. Edozein kasutan ere, funtzionamenduaren edota prozesuaren bermeak erabili eta betetzearen ondorioak obraren zuzendari profesionalaren erantzukizuna izango da, baldin eta kontratisten erantzukizuna egiaztatzen ez bada, GHKri edo Kontsorzioari instalazioak eraikitzeko lanak behar bezala bukatu direla ziurtatzen dien neurrian.

2.5 INSTALAZIOAK ABIAN JARTZEA IKUSKATZEA

Lehiatzaileek deskribatuko dute planta guztiak abian jartzea ikuskatzeko proposatzen den laguntza teknikorako taldea. GHK-k edo Kontsorzioak eskatzen badute lehiatzaileak bere eskaintzan zehaztutakoa baino talde handiagoa, GHK-k edo Kontsorzioak eskatutako talde handiagoaren zerbitzuak burutuko dira esleipendunak bere eskaintzan adierazi dituen tarifen arabera.

Bete beharreko lanak jarraian deskribatuko direnak izango dira, eta GHK-k edo Kontsorzioak ahalmena izango dute beren beharretara neurri handiagoan egokitzen diren beste eginkizun batzuk esleipendunarekin batera adosteko:

- Kontratistek prestatutako abian jartzeko prozedurak (hotzean eta beroan) ikuskatzea.
- Sistema guztien berme-probak egiteko protokoloak berraztertzea.

- Hornitzaileen abian jartzeko protokoloak betetzen diren ikuskatzea. Egindako probak egiaztatzea.

2.6 LAGUNTZA TEKNIKOA OROKORREAN, GIPUZKOAKO HONDAKINEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANEAN JASOTA DAUDEN AZPIEGITURAK ABIARAZTEARI DAGOKIONEAN.

Atal honen barruan leudeke Gipuzkoako Hondakinen Lurraldearen Arloko Planean jasota dauden hondakinak kudeatzeko azpiegitura guztiak abian jartzeari ekiteko burutu beharreko lanak. Ildo horretan, lehiatzaileek teknikari talde orokorra definituko dute beren eskaintzan, GHKren edo Kontsortzioaren esanetara egongo dena, adierazitako lanak gauzatzeko.

Lan horiek zehazteko egungo ziurgabetasunaren aurrean, eta proiektatu/abian jarri beharreko instalazioak gauzatzeko epeak alda daitezkeela kontuan hartuta, alderdien artean adostuko dira, hileroko jarraipen-txostenetan, egin beharreko/egindako lan eta jarduerak, dagokien balorazio ekonomikoarekin batera. Horren ondorioz, egiaz gauzatutako lanak ordaintzeko sistema birbanatu ahal izango da.

3. LANAK ZUZENTZEA

Lanak proiektuaren zuzendari batek zuzenduko ditu, eta GHK-k edo Kontsorzioak izendatua izango da. zuzendariak ezarriko du egokien deritzon lanak zuzentzeko prozedura, ezaugarri-agiri honetan esleipendunarentzat deskribatutako baldintzak aldatu gabe.

Laguntza teknikoa emateko kontratu honen iraunaldi osoan lanak zuzentzeko, GHK-k edo Kontsorzioak ordezkari tekniko bat izendatuko dute, proiektuak idatzi, baimenak lortu, baldintza-agiriak idatzi eta lehiaketetako eskaintzak baloratu, eta azpiegituretako kontratazioak abian jartzeko prozesuetan parte hartzen duten gainerako pertsona fisiko edo juridikoen aurrean haien ordez jarduteko.

Ordezkari teknikoa honela osatuta egongo da: sozietate publikoko kideak eta, egokia bada, sozietateak laguntza-fase bakoitzerako zehazten dituen kanpoko laguntzaileak.

GHK edo Kontsorzioa saiaturik dira, ahal den neurrian, ordezkari hori obrak gauzatzeko faserako sozietate publikoko ingeniari baten esku uzten; ingeniariak, bere aldetik, kolaboratzaile talde bat eduki ahal izango du lanak garatzeko, sozietateak berak izendatua bertako kideen artean edo horretarako berariaz kontratatua. Goian adierazitakoa gorabehera, GHK-k edo Kontsorzioak ordezkari teknikorako beste sistema bat zehaztu ahal izango dute, egokitzat joz gero.

Esleipendunak lanen segimendua egokia egiten utzi beharko dio GHKren edo Kontsorzioaren ordezkariari.

Hala bada, laguntzaren iraunaldian administrazioekin, hornitzaileekin edo hirugarrenekin egiten diren bileren berri emango zaio, parte hartzea ahalbidetzeko, hala nahi badu. Obrak gauzatzeko epean, GHKren edo Kontsorzioaren ordezkariak, edonola ere, parte hartu beharko du esleipendunak kontratistekin egiten dituen bilera guztietan, eta beraiekin batera ikuskatuko dute obrak gauzatzeko prozesua. Halaber, GHKren edo Kontsorzioaren ordezkariari kontsulta egingo zaio kontratu-dokumentuetan ezarritako kalitate, prezio edo epeen baldintzetan edozein aldaketa egiteko, eta aldaketa gauzatzeko beharrezkoa izango da ordezkariaren aurretiazko onepena.

Edozein kasutan ere, eta erabakiak hartzeko jatorriaren ondoriozko erantzukizunak neurtzeari utzi gabe, esleipendunak GHKren edo Kontsorzioaren irizpide, erabaki eta zehaztapenak beteko ditu zorrotasunez laguntza emateko orduan. Sozietate publikoaren iritzia errespetatzeko betebeharrak hau edozein modutan ez betetzea akats larria izango da, eta, horren ondorioz, sozietateak laguntza-kontratua suntsiarazi ere egin ahal izango du.

4. ESLEIPENDUNAREN LANGILEAK ETA BULEGOA

4.1 EKOIZPEN TALDEA.

Ekoizpen-taldea laguntza teknikoko kontratu honen esleipenduna den ingeniari-entresakoa izango da. Hala eta guztiz ere, lan espezializatuak burutzeko, enpresa edo profesional independenteak, Baldintza Berezien Agirian zehaztutako kontratazio-baldintzak betetzen dituztenak, azpikontratatu ahal izango dira. Azpikontratazio horiek aitortu beharko dira aurkezten den eskaintzan, eta argi eta garbi zehaztuko dira zer lan egin beharko dituzten; halaber, horretarako osatutako taldeen osaera adieraziko da, beharrezkoa den xehetasunez, esleipendunarenak balira bezala. Edonola ere, azpikontratazioa egiteko beharrezkoa izango da lan guztien zuzendariak aurretiaz, berariaz eta idatziz onartzea.

Esleipendunak esleipendunaren ordezkari bat izendatuko du eskaintzan, haren eta GHKren edo Kontsortzioaren artean bitartekari aritzeko. Horretarako, hiri-hondakinak tratatzeko instalazioen proiektuen diseinuan eta gauzatzean eskarmentu egiaztatua duen ingeniari bat hautatuko da.

Esleipendunak bere eskaintzan zehaztu beharko du lan-fase bakoitzeko zer talde arituko den, eta taldea osatuko duten kideen zerrenda sartuko du, informazio hau ere jasotzen duena: kideen izenak, lanbide-kategoria, burutuko duten lan zehatza eta arduraldia (parte hartzen duten aldiko lanaldiaren portzentajea). Halaber, organigrama bat gehituko du, eta bertan, argi eta garbi definituta egongo dira arduradunak eta talde teknikoko kideen arteko loturak.

Edozein momentutan, eta beharrezkoa den guztietan, lanen zuzendariak eskatu ahal izango du, esleipendunak aurretiaz idatzizko justifikazio argudioduna aurkeztuta, gaitasun desegokia duten langileak gehienez ere 15 eguneko epean aldatzea.

Ekoizpen-taldeak bere autokontrola garatu beharko du, bereziki lan batzuk azpikontratatzeko direnean (barneko kontrola).

4.2 ESLEIPENDUNAREN BULEGOA

Lanak gauzatu bitartean, GHK-k edo Kontsortzioak espazio bat egokituko dute esleipendunaren alde, eta nahikoa izango da bertan lanen kontrola eta jarraipena egiteko bulegoa kokatzeko. Espazio hori GHKren edo Kontsortzioaren egoitza dagoen lokaletan kokatuko da, eta lanen zuzendariak ikuskapena eta azterketa egiteko lekua izango da.

Esleipendunak bulego horretan jarriko ditu laguntza behar bezala emateko beharrezkoak diren baliabide materialak; bulegoa, halaber, ekipoek behar bezala jarduteko behar diren instalazioez hornituta egongo da, eta kontratua sinatzen denetik laguntza tekniko amaitu arte funtzionatu beharko du.

Hori horrela, eta hasiera batean, aurreikusita dago proiektuak idazteko eta dokumentazio tekniko prestatzeko fasean esleipendunaren langileek laguntza ematea egoitza soziala dagoen lekuan. Hala eta guztiz ere, GHK-k edo Kontsortzioak beretzat gordeko dute laguntza-fase bakoitzari atxikitako langileen presentzia fisikoa alde bakarretik eta lehiaketako

prezioa handitu gabe eskatzeko ahalmena, baldin eta proiektua nahi bezain egoki bilakatzen ez dela uste badute.

5. LAN PROGRAMA, ETA ALDIAN ALDIKO TXOSTENAK LAGUNTZA TEKNIKOAREN GARAPENARI BURUZ

Lanak egiten diren lehenengo bi asteetan, esleipendunak lan-programa bat aurkeztuko du lanen zuzendariak onar dezan; bertan definituko dira laguntza teknikoaren barruko egiteko garrantzitsuenak osatzeko aldi baterako epeak. Lan-programa horretan, halaber, bilerak egiteko egutegia ezarriko da. Esleipendunaren ordezkioak parte hartuko du bilera horietan laguntza-fase bakoitzean, eta baita egokitzat jotzen dituen bere taldeko kideek ere, lanen garapena aztertzeko.

Bilera horien akta egingo da, eta lanen zuzendariaren eta esleipendunaren ordezkioaren edo haien ordezkarien onespina jasoko da bertan.

Esleipendunak agindutako lanen egoera orokorrari eta onartutako lan-programaren betetze-mailari buruzko idatzizko informazioa eman beharko dio lanen zuzendariari hala eskatzen zaion bakoitzean, eta, edonola ere, hil bakoitzaren lehenengo bost (5) egunetan.

Halaber, lanen zuzendariak eta bere taldeko kideek sarbide librea izango dute esleipendunaren eta bere kolaboratzaileen instalazioetarako, lanak ikuskatu ahal izateko, eta lanarekin zerikusia duten dokumentuak eta artxiboak askatasunez kontsultatu ahal izango dituzte.

6. LAGUNTZA TEKNIKOA EMAN BITARTEAN PRESTATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA, EDIZIOA, KOADERNAKETA ETA JABETZA INTELEKTUALA

Atal honetan zehaztutako dokumentazioaren zerrenda alde batera utzita, laguntza honen ondoriozko lan, dokumentu, edozein formatutako fitxategi informatiko, proiektu, aurrekontu, diseinu eta abar guztiak eta edozein lan-emaizta GHKren edo Kontsorzioaren jabetzakoak dira, eta horien jabetza intelektualaren eskubidea beretzat gorde dute. Hala bada, esleipendunak bermatu beharko du GHK-k edo Kontsorzioak laguntzaren ondoriozko dokumentazio osoa eskuratu ahal izango dutela.

Berariaz, beharrezkoa izango da GHK-k edo Kontsorzioak aurretiaz beren onespina ematea, esleipendunak laguntza teknikitik kanpoko hirugarrenei laguntzari buruzko dokumentuak uzteko.

7. ESLEIPENDUNAREN ESKURA JARRITAKO DOKUMENTAZIOA

GHK-k edo Kontsortzioak ondorengo dokumentazioa jarriko dute esleipendunaren eskura:

- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala eta Aurrerapen Dokumentua
- GHKPO-ADren Prognosiaren eguneratzea, 2015eko abendua
- Gipuzkoako Hondakinen Lurraldearen Arloko Plana
- Eraikiko diren instalazioen inguruko oinarrizko proiektuak, jadanik eginak
- Indarrean dagoen Ingurumen Baimen Bateratua
- Egin beharreko lanen inguruan GHK-k edo Kontsortzioak egindako bestelako izapide, legeztapen edo jakinarazpenak

8. ESLEIPENDUNAREN LANKIDETZAZ BURUTUKO DIREN LANAK

Esleipendunak mekanografia, delineazio, kopia, koadernaketa eta antzeko lan guztiak burutuko ditu, bai bere lankidetzaz idatziko dokumentuei dagokienean, bai GHK-k edo Kontsortzioak esleipendunaren esku-hartzerik gabe prestatu dituztenei dagokienean, Lanen Zuzendaritzak hala agintzen dionean.